

4. GUTUNAK

Telefonia eta aurrez aurreko elkarrizketak ezinbesteko komunikazio bideak badira ere, egun, garrantzia handia hartu du harreman idatziak. Gero eta ohikoagoa da, esaterako, gutun pertsonalizatuak erabiltzea, edota, edozein erreklamazio, jakinarazpen, eskaera eta abar faxez zein posta elektroniko bidez egitea.

Erabiliko dugun bidea edozein dela ere, oso garrantzitsua da bidali behar dugun horrek itxura zaindua izatea, mezua hartzailearengana argi eta garbi iristeko.

Lan horretan laguntzeko, honakoak topatuko dituzu: batetik, gutunak idazteko oinarrizko azalpenak eta, bestetik, hainbat gutun eredu.



4.1 OINARRIZKO ARGIBIDEAK

 **Gutunaren egitura:** Gutun gehienek egitura berdintsua izaten dute. Eskema honetan ikus daiteke osagaiak zeintzuk diren eta non kokatzen diren:

1. GOIBURUKOA	1.1 Orri-burua	1.2 Hartzailea
	1.3 Gaia	1.4 Data
	1.5 Hasierako agurra	
2. GORPUTZA	2.1 Sarrera	
	2.2 Testua	
3. OINA	3.1 Amaierako agurra	
	3.2 Sinadura	
	3.3 Oharrak	



Gutunaren zatien azalpena: eskeman ikusi dugun bezala, hiru dira gutuna osatzen duten atal nagusiak: goiburukoa, gorputza eta oina. Bakoitzaren ezaugarriak eta egoki idazteko hainbat aholku dituzu ondoren.

1. GOIBURUKOA

1.1 Orri-burua

Orri-burua goi-goian eta ezker aldean jartzen da. Bertan, elkar-tearen ezaugarriak azaltzen dira. Ondoko hauek ager daitezke:

- ✓ Elkar-tearen logotipoa
- ✓ Elkar-tearen izena
- ✓ Elkar-tearen jarduera
- ✓ Helbidea (kalea, zenbakia etab.)
- ✓ Posta kodea (zenbakiz), herriaren izena (letra larriz) eta herrialdearen izena (letra xehez, parentesi artean)
- ✓ Telefono zenbakia
- ✓ Fax zenbakia
- ✓ Helbide elektronikoa
- ✓ Erregistro zenbakia

Adibidean ezaugarri horietako batzuk jasotzen dira:





1.2 Hartzailea

Hartzailearen datuak goialdean (eskuinaldean) jasotzen dira, orri-burua baino beherago. Bertan, enpresa, erakunde edo entitatearen izena eta, dagokion kasuan, jasotzailearen izen-abizenak, kargua eta helbidea adierazten dira. Hartzailearen izenaren ondoan ez da beharrezkoa jaun edo andrea idaztea.

Ikusi ondoko adibidea:

Euskadiko Kutxa
Arrantzale kalea, 4
20808 Getaria (Gipuzkoa)

1.3. Gaia

Gaia, jasotzailearen ondoren idatziko dugu, orriaren ezkerraldean. Gutunaren mamia azalduko da bertan, oso era laburrean. Bi edo hiru hitzez adieraziko dugu zein den gaia.

Demagun, enpresa batek gaizki bidali digula azkeneko faktura. Gutun bat idatziko dugu hori adierazteko. Kasu honetan, gaia zera izango litzateke: **faktura okerra**

1.4. Data

Orriaren goialdean ageriko da, oro har, eskuinaldean, hartzailearen azpialdean:

Lehenengoz, herriaren izena idatziko da. Ondoren, koma batez bereiztuta, data¹ idatziko da

1. Ikus dataren inguruko azalpena 13. orrialdean.



Hona hemen zenbait adibide:

Zarautz, 2001eko maiatzaren 13a

Zumaia, 2002ko urriaren 18a

Getaria, 2004ko ekainaren 4a

Orio, 2005eko otsailaren 11

Aia, 2011ko abenduaren 31

1.5. Hasierako agurra

Agurraren bitartez, hasiera ematen diogu gutunari, eta honen-
bestez, jasoko duenarekiko harremanari. Horregatik, agurra
aukeratzerakoan, kontuan hartu behar dugu gutuna nori
zuzentzen zaion eta nolako tratamendua eman nahi diogun.

■ HURBILA

■ Adiskide:

■ Adiskidea:

■ Adiskide hori:

■ Adiskideak:

■ Adiskideok:

■ Adiskide horiek:

■ Laguna:

■ Lagun hori:

■ NEUTROA

■ Jauna:

■ Jaun hori:

■ Jaunak:

■ Jaunok:

■ Jaun horiek:

■ Andrea:

■ Andre hori:

■ Andreak:

■ Andreok:

■ Andre horiek:

■ Bazkidea:

■ Bazkide hori:

■ Bazkideok:

■ FORMALA

■ Jaun agurgarria:

■ Andre agurgarria:

■ Jaun-andre agurgarriak:

■ Jaun agurgarri hori:

■ Andre agurgarri hori:

■ Bazkide agurgarria:



2. GORPUTZA

2.1. Sarrera

Sarreraren mezuaren aurkezpena egingo da. Horretarako, esaldi labur bat erabiliko da, gutuna kokatzeko gaia aipatzen duena. Gaia aurkezten lagunduko diguten hainbat esamolde erabil daitezke atal horretan, besteak beste:

<i>A causa de...</i>	...dela medio... / ...dela bide...
<i>A consecuencia de...</i>	-(r)en ondorioz
<i>A la atención de...</i>	-(r)entzat
<i>A petición de...</i>	-(r)en eskariz -(e)k eskatuta
<i>Acabo de recibir...</i>	Jaso berri dut...
<i>Acusamos recibo...</i>	...jaso dugula adierazi nahi dugu... ...hartu dugula jakinarazi nahi dugu...
<i>Adjunto remito...</i>	Honekin batera doakizu... Honekin erantsi dizugu...
<i>Agradecemos...</i>	Eskertu nahi dugu... Gure eskerrak eman nahi...
<i>Agradeceríamos que...</i>	Eskertuko genuke...
<i>Con motivo de...</i>	...dela eta...
<i>Contestando a...</i>	-(r)i erantzunez...
<i>De acuerdo con...</i>	-(r)en arabera -(r)ekin bat etorritz
<i>En nuestro poder...</i>	Gure eskuetan... Esku artean...



<i>En respuesta a...</i>	-(r)i erantzuna eman nahian
<i>He recibido...</i>	... jaso dut....
<i>Lamentamos</i>	Sentitzen dugu...
	Zoritxarrez, esan behar dizut...
<i>Me complace...</i>	Atseginez...
<i>Me es grato...</i>	Atsegin dut....-(e)la
<i>No habiendo recibido contestación...</i>	...erantzunik jaso ez dugunez gero...
<i>Para su conocimiento</i>	Jakin dezazun...
	-(r)en berri izan dezazun
<i>Ponemos en su conocimiento</i>	Jakinaraziko dizugu...
	Zu jakinaren gainean jarriko zaitugu...
<i>Poner al corriente</i>	Egunean jarri
<i>Por medio de...</i>	Honen bidez...
	Honen bitartez...
<i>Por razones que Ud. sabrá comprender...</i>	Ulertuko dituzun arrazoiak direla eta...
<i>Rogamos que...</i>	Mesedez...
	Eskatu nahi dizugu...
	Eskatu nahiko genizuke...
<i>Según sus instrucciones</i>	Zuk agindu bezala
<i>Tenemos a su disposición...</i>	Zure eskura jartzeko daukagu...
	Zuretzat dugu...
	Hemen dugu zuretzat...
<i>Tener conocimiento de...</i>	-(r)en berri izan...
	-(e)la jakin dugu...
<i>Tengo el gusto de...</i>	Pozarren...
<i>Tengo el placer de...</i>	Pozik...



2.2 Testua

Zati horretan, gaia edo arazoa azaldu eta garatu egiten dira. Sarrerako esaldiaren azpialdean izango du hasiera, aparteko lerroaldean.

Oso garrantzitsua da gutunaren edukiaren egitura logikaren hurrenkera egokian azaltzea, garrantzi handiena edo zehaztasun handiena duenetik hasita, xehetasun eta berezitasunak garatzen joateko.

3. OINA

3.1 Amaierako agurra

Gutunaren atal horren bidez, amaiera ematen zaio haren edukiari. Atal hori jasotzaileari agur egiteko aprobetxatzen da. Gutunaren atalik zainduena izan behar du tratamenduaren ikuspegitik. Era askotakoak izan daitezke: eskerrak ematekoak, zoriona edo arrakasta opatzekoak, barkamena eskatzekoak, eskaintza egitekoak... Nolanahi ere, azken agurra ahalik eta laburren eta samurren izango da, sarrerako agurrarekin eta gutunaren beraren estiloarekin bat etorritik.

Jarraian dituzu agur mota batzuk, eredu gisa:

A la espera de su(s), un, el...
Esperando su(s), un, el...

Agradecer

Agradeciendo de antemano

*Aprovechar (la ocasión) /
(la oportunidad) para...*

-(r)en zain

Eskertzen dizut/dizuet

**Eskerrak ematen dizkizut/
dizkizuet**

Aldez aurretik eskerrak emanaz,

Abagune honetaz baliatuz...

Abagune hau aprobetxatuz...



<i>Atentos saludos (de)</i>	Adeitasunez
<i>Cordiales saludos (de)</i>	Adeitasunez, agur
<i>Muy atentamente</i>	Begirunez
<i>(suyos) atentamente</i>	Begirunez, agur
<i>Con premura</i>	Ahalik eta bizkorren
<i>Confiamos en poder...</i>	-(e)lakoan
<i>Confianto en que</i>	
<i>Convencidos de que...</i>	
<i>Esperando que...</i>	
<i>Confiamos plenamente en que...</i>	Ziur egon... -(e)la
<i>Con la certeza de que...</i>	Uste osoa izan...-(e)la
<i>Con la seguridad de que...</i>	
<i>Estamos seguros que...</i>	
<i>Expresar</i>	Adierazten dizut/ azaltzen dizut
<i>Gracias por su colaboración</i>	Mila esker zure laguntzagatik
<i>Hacer llegar</i>	Helarazten dizut/dizuegu
<i>Hasta la vista</i>	Ongi izan eta hurrengora arte/ hurrengo arte, Ongi izan eta laster arte, Laster arte, Ikusi arte, Ongi izan, Agur honenbestez,
<i>Hasta nuevo aviso</i>	Besterik esan arte
<i>Le(s) saluda(mos)</i>	Agurtzen zaitut /zaituztet / zaituztegu,
<i>atentamente,</i>	Adeitasun osoz, agur/ agur eta erdi
<i>cordialmente...</i>	Har ezazu / ezazue nire / gure agurrik beroena, Har ezazu / ezazu agur bero bat,



*Para que conste y surta
sus efectos*

Para que sea efectivo

Quedar

Remitir un respetuoso saludo

*Enviar nuestros mejores
saludos*

Saludar con respeto

Saludos

Ser atendida la solicitud

Si procede

Sin demora

Sin dilación

Sin más

Tomar nota

**Ager dadin eta eragina
izan dezan**

Eraginkorra izan dadin

Gelditu, geratu / egon

Jaso agurrik beroena

Adeitasun osoz, agur

Begirune osoz, agur

Agur

**Eskabidea aintzat hartuko
duzelakoan**

Bidezko bada

Berandutu gabe

Luzapenik gabe

Besterik gabe

Honenbestez, besterik ez

Gogoan hartuko duzelakoan

3.2 Sinadura

Sinaduraren azpian sinatzailearen izena idazten da, eta ondoren, honek duen kargua.

"Izenpetua" hitza jar daiteke izena baino lehen, honako laburdura erabiliz: *Izpta*.

3.3 Oharrak

Zenbaitetan, gutunari erantsi beharreko informazio gehigarria izaten dugu: eranskina, agiria, faktura... Horrelakoetan, infor-



mazio horiek guztiak gutunaren behealdean adieraziko ditugu, "oharra" hitzaren ondoren. Batzuetan latinezko bi laburdura hauek erabiltzen dira:

PD: *post data*

PS: *post scriptum*



4.2 GUTUN EREDUAK

A. ZERBAIT JAKINARAZTEKO GUTUNA



ARIN ORIOKO
ATLETISMO ELKARTEA
Urbide kalea 12
20810 Orio

AMAIA UGARTE LANDA
Zuhaizti Pasealekua 32
20810 Orio

Gaia:

Bazkide-kuota eta txartela

Orion, 2003ko urtarrilaren 9an

Bazkide estimagarria,

Iazko azken batzarrean adostu genuen bezala, aurtengo lehen hiruhilekoan gure elkarteke administrazio eta kontabilitate sistema eraberritu eta informatizatzeari ekingo diogu. Oinarrizko alaketak egin bitartean sor litezkeen eragozpenak ekiditearren, aurtengo bazkideetza kuota ordaintzeko epea aldatuko dugu. Beraz, **datorren apirilean** kobratuko dugu aurtengo kuota.

Era berean, jakinarazi nahi dizugu, aurtengo bazkide txartelaren formatua ere aldatzeko asmoa dugula. Horretarako beharrezkoa izango zaigu zure argazki bat eskuratzear gain, hainbat datu guri helaraztea. Hori guztia bideratzeko **urtarrilaren 30a baino lehen** elkartearen egoitza pasatzea eskertuko genizuke. Nahiago baduzu, telefonoz ere jar zaitezke gurekin harremanetan.

Besterik gabe, agur bero bat

Izpta.: Edorta Martinez
IDAZKARIA

Oharra: gogoan izan aurtengo kirol ekitaldien egutegia egoitzan bertan eskura dezakezula.



B. ESKAERA EGITEKO GUTUNA (1)



HALTEROFILIA ELKARTEA

Pagoeta kalea 12
20800 Zarautz
Tel.: 943 132 132

GIPUZKOAKO KUTXA

Koldo Imaz
Getaria kalea 15
20800 Zarautz

Gaia:

Sari eskaera

Zarautzen, 2002ko urriaren 2an

Laguntzaile agurgarria,

Urtero bezala, Arin Halterofilia elkarteak jubenil eta infantil mailako kriteriuma antolatuko du aurten ere. Txapelketa uztailaren 15ean ospatuko da Musika Plazan, arratsaldeko 5etan.

Parte hartuko duten taldeak honako hauek dira:

ZARAUZKO HALTEROFILIA TALDEA BORDELEKO GIRONDINS TALDEA

Saioen ondoren sari banaketa egingo da, eta aurreko edizioetan egin dugun moduan, zuregana jotzen dugu oraingoan ere, bertan banatuko den sariren bat eskatzeko asmoz.

Besterik gabe, aldez aurretik zure laguntza eskertuz, jaso ezazu gure agurrik beroena.

Izpta.: Xabier Olaskoaga
IDAZKARIA

Oharra.: Eskertuko genizuke hartutako erabakia ahalik eta lasterren guri helaraztea.



ESKAERA EGITEKO GUTUNA (2)

**ZUMAIAKO
ARIN
PILOTA
ELKARTEA**

Peru kalea 12
20750 Zumaia
tel. 943 860 212

**GIPUZKOAKO
EUSKAL PILOTAKO
FEDERAZIOA**

Zumaian, 2003ko urriaren 8an

Gaia:

Arbitro eskaera

Jaun/Andre agurgarriak,

Eskutitz honen bidez jakinarazi nahi dizuegu **ESKUZKO KADE-TEAK Arin KE - Hernani** partida urriaren 12an goizeko 9:30ean jokatu dela, Zumaia pilotalekuan. Ondoren, **PALA MOTZEKO Arin KE - Gazte leku** partida ospatuko da.

Partida hauek behar bezala jokatu ahal izateko, arbitroak bidal ditzauden eskatu nahi dizuegu.

Besterik gabe, aldeztu aurretik eskerrak emanez

Adeitasunez,

JON ARRUE GOMEZ
ARIN K.E.KO IDAZKARIA



C. GONBIDAPENA EGITEKO GUTUNA



arraun elkartea

Peru kalea12
20750 Zumaia
tel. 943 860 212

ZUMAIAKO UDALA

Alkate jauna
Foruen plaza 09
20750 Zumaia

Gaia:

Gonbidapena egitea

Zumaian, 2003ko ekainaren 27an

Jaun agurgarria,

Gutun honen bidez, jakinarazi nahi dizugu uztailaren 8an gure herrian hain ezaguna den Joxe Manterola arraunlari ohia omenduko dugula.

Herriko plazan egingo den ekitaldiaren ondoren, bazkaria izango dugu gure elkartean.

Hori dela eta, zuregana jotzen dugu zu bazkari horretara gonbidatzeko.

Besterik gabe, bertan elkar ikusiko dugulakoan, jaso ezazu gure agurrik beroena.

Adeitasunez,

Izpta.: Edorta Martinez
ARRAUN ELKARTEKO ARDURADUNA



D. ERREKLAMAZIOA EGITEKO GUTUNA

ARIN Mendi elkarte

Elizalde kalea 20, behe
20809 Aia-Gipuzkoa
Tel.: 943 834 132
Faxa: 943 834 133

HARAN HORNIKUNTZAK

(Miren Arregi andrea)
Lea etorbidea 75
48009 Bilbo

Gaia:

Materiala bueltatzea

Aian, 2003ko maiatzaren 3an

Andre hori,

Jaso berria dugu apirilaren 27an bidalitako materiala. Guztia aztertu ondoren, badugu zurekin argitu beharreko kontu bat.

Izan ere, jasotako materialaren artean eskatu ez genituen poltsikoko iparorratzak topatu ditugu. Gutun honen bitartez, jakinarazi nahi dizuegu oker bidez jaso dugun materiala berriro bueltatuko dizuegula gure fakturan beharrezko zuzenketak egin ditzazuen.

Aldez aurretik eskerrak emanez

Izpta.: Xabier Olaskoaga

IDAZKARIA